

Aldez aurreko kontsulta publikoa, Hezkuntzako kontseilariak emandako 48/2011 Foru Aginduko zenbait artikulua aldatzeko foru agindurako proiektuari buruzkoa. Aipaturiko foru agindu horren bidez eman ziren Nafarroako Foru Komunitatean Musikako Gradu goi mailako ikasketetan sartu, matrikulatu eta jarraitzeko arauak.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluan xedatzen denez, erregelamenduzko lege proiektu edo aurreproiektu bat egin aurretik kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren web atariaren bidez, jakiteko zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta erakunde nabarmenenek. Txostenean gai hauek jasoko dira:

- a) Ekimenarekin zer problema konpondu nahi diren.
- b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.
- c) Arauak zer helburu dituen.
- d) Aukeran dauden beste konponbide batzuk (arauak edo arau ez direnak)

Dokumentu honek helburu du indarrean dagoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 legearen 133.1 artikulua mahaigaineratzen dituen gaiei konponbidea ematea, baita oinarria izatea ere Nafarroako Foru Komunitatean Musikako Gradu goi mailako ikasketetan sartu, matrikulatu eta jarraitzeko arauak ematen dituen 48/2011 Foru Agindua aldatzeko foru agindurako proiektuari buruzko aldez aurreko kontsulta publikorako.

A) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak

- 3. artikulua. Ikasketetan sartzeko betebeharrak akademikoen ordezkari heldutasun proba. 21/2015 Errege Dekretuaren zortzigarren xedapen gehigarriak hezkuntzako administrazioei aukera ematen die 16 urtetik gorakoei musikako goi mailako ikasketetarako sarbide zuzena ezartzeko, izangaiak dagozkion ikasketak aprobetxamenduz egiteko behar diren ezagutza, trebetasun eta gaitasunak dituela egiaztatzeko berriazko proba bat gaindituta. Berritasun hau barne hartzea proposatzen da.
- 12. artikulua. Matrikulan hartu beharreko kreditu kopurua ikasmailaren arabera. Bigarren ikasmailako irakasgaietan matrikulatu ahal izateko, proposatzen da lehen ikasmailan gainditu beharreko gutxienezko kreditu kopurua 40tik 30era jaistera.
- 13. artikulua. Matrikulatzeko mugapenak. Gaur egun, lehenengo ikasmailako irakasgai guztiak gainditu ezean ezin da hirugarren ikasmailako irakasgaietan matrikulatu, eta bigarren ikasmailako irakasgai guztiak gainditu ezean ezin da laugarren ikasmailako irakasgaietan matrikulatu. Proposatzen dena zera da: mugapen hori malgutzea, hirugarren eta laugarren ikasmailatan matrikulatzea ahalbidetu dadin gehienez ere lehen ikasmailako eta bigarreneko 20 kreditu gainditu gabe izanda, hurrenez hurren.
- 18. artikulua. Musikako gradu goi mailako ikasketetan egoteko denbora muga. Egoki irizten zaio 8 urtetik 6 urtera murrizteari.
- Eranskina. Sarrera proba berriazkoaren egitura eta edukia, espezialitatearen arabera / Berriazko probako atalen balorazio partziala, espezialitatearen arabera.

Iradokitzen da probaren edukiari zein probaren atal bakoitzaren ponderazioari dagozkion alderdi zehatzak aldatu eta zabaltzea.

Bestetik, urtarrilaren 23ko 21/2015 Errege Dekretuak aldatu egin zuen 1614/2009 Errege Dekretua, urriaren 26koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan araututako goi mailako arte ikasketak antolatzen dituena. Errege Dekretu hori eman zen Auzitegi Gorenak zenbait epai eman baitzituen 1614/2009 Errege Dekretuaren artikulatuaren zati bat deuseztatuz, hain zuzen ere, ikasketa horiek Gradu ikasketatzat jotzearen eta titulazioa gradudun titulua izendatzearen gaineko guztia. 21/2015 Errege Dekretua argitaratu ondoren, ez zen bidezko ikusi arrazoi bakar horrengatik aldatzea ED horren aplikazioaren ondorioz ukitutako foru araudia aldatzea, zehazki: 109/2010 Foru Agindua, uztailaren 1ekoa; 210/2010 Foru Agindua, abenduaren 27koa; 48/2011 Foru Agindua, martxoaren 29koa eta 34/2014 Foru Agindua, apirilaren 22koa.

Une honetan, 48/2011 Foru Agindua aldatu beharrezkoa da, aurrez aipatu diren arrazoiak tarteko. Gainera, foru agindu berrian xedapen gehigarri bat sartzea proposatzen da, indarrean den foru araudia Musikako gradudun tituluz ari denean Goi Mailako Musika tituluz ari dela ulertuz eta, halaber, indarrean den foru araudia Musikako goi mailako Gradu arte ikasketei buruz ari denean Musikako goi mailako arte ikasketez ari dela ulertuz.

B) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den

48/2011 Foru Agindua une honetan aldatzea planteatzen da, hain zuzen ere, aurrez adierazitako alderdiak 18-19 ikasturtetik aitzina indarrean sar daitezten eta goi mailako musika ikasketak Nafarroako Goi Mailako Kontserbatorioan egin nahi dituzten ikasle interesdunek jakin ditzaten gai hauek ikastetxean matrikula egin aurretik.

C) Arauak zer helburu dituen

Xedea da musikako goi mailako ikasketetan sartzea, matrikulatzea eta jarraitzea arautzen duten zenbait alderdi aldatzea, horrela, atzeman diren bat ez etortzeak eta/edo egoera hobegarriak konpondu ahal izateko.

D) Aukeran dauden beste konponbide batzuk (arauak edo arau ez direnak)

Ez da balizko bestelako konponbiderik aurreikusten

Iruñean, 2018ko otsailaren 12an

Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzua. Zerbitzuko zuzendariak O.E.

Hasier Morras Aranoa